

# ED GASTEIZ

Gasteizko Euskaldunon Aldizkaria



## Antonio Miranda, adiorik ez!

### Tania & Mauro

betaurreko berriak  
**MULTIOPTICAS**en azkena zure  
 begiak modaz jazteko.  
 Beren diseinu erakargarri eta  
 kalitatezkoak.  
 Eta prezioa, harrigarria:  
 2.550 pta.

Eta beti **MENDIA OPTICA**ren  
 garantiarekin.  
 Zatoz eta zerorrek froga ezazu.

betaurrekoak  
**Tania & Mauro**

**ALAITU  
 EZAZU  
 BEGIRADA  
 2.550 pta.**



**MENDIA OPTIKA**

DESDE 1856 AZ GERO

MULTIOPTICAS

**Beti Zuri Begira**

Andre Maria Plaza - Olagibel, 33 ( anbulategi aurrean )  
 GASTEIZ

EMAN TA ZABAL ZAZU



EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA  
ARABAKO OHORAKO IRAKASLEGOAREN  
UNIBERTSITATE ESKOLA

# HIZKUNTZ PLANGINTZARAKO METODOLOGIA ETA EREDUAK



— IKASTAROA —

Azaroaren 20an eta 27an, goizeko 9,30etatik ordu biak arte

Informazioa eta  
izen-ematea:



26 19 79 (Josu)

ordu 2,30etatik  
4,30ak arte

Antolatzaileak:

Arabako Irakaslego Eskolako  
HN lantaldea

GEU Gasteiz Euskalduna

UEU

*Arabako Foru Aldundiaren Kultur Sailaren babesarekin*

Gure eskerronik beroenak  
eskeini nahi dizuegu,  
dagoeneko 11 zenbaki ikusi  
duen aldizkari eta ekimen honi  
laguntza eman diozuen guztioi.  
Laguntzaile, iragarle eta irakurle  
guzti-guztiori. Zuei esker  
hilabetero milaka euskaldun eta  
euskatzaleengana heltzeko  
aukera dugulako.

**GEU GASTEIZ**

**NON - ZER**

- 4.** Bertsoak
- 5.** Argazkia albiste
- 6.** Kalea mintzo
- 8.** Bazenekien...?
- 9.** Erreportaia:  
Estibalitzeko monastegia
- 12.** Atzoko eta gaurkoa
- 13.** Elkarrizketa:  
Ana Lucia Billate eta Txema Blasco
- 16.** Ikusitakoak
- 18.** Gazte musika
- 19.** Haurrak
- 21.** Kirolak:  
Antonio Mirandaren omenez
- 25.** Kultur agenda
- 28.** Denborapasak
- 29.** Sukalde Txokotik
- 30.** Komikia

**Geure normalizazioa**

**A**ldizkariak eman didan aukeraz baliatuz, zenbait burutazio plazartzera noakizue.

92-93 ikasturtea benetan gogorra izan da ikastolentzat, batez ere kanpoko eragilei esker, eta bereziki Hezkuntza Saileko arduradun nagusia den Fernando Buesa jaunaren politika erasokorragatik.

Dirudienez, hezkuntza gaietan buru belarri sartu zenetik, ikastolak dantzan ipintzea izan du helburu nagusi. Horretarako, presio bide guztiak erabili ditu, esate baterako, baimenak kendu, finantziazioa murriztu, gurasoei idatziak bideratu, garraio laguntzak kendu... eta guzti hau, "lograr la paz escolar", "normalizar el sistema"... esaldi boro-bilpean.

Ez da denbora asko, hezkuntzaz ezer gutxi dakien lagun batek ondorengo esaldia bota zidan: "normalizatu, normalizatu,... ez dakit zer normalizatu nahi duten. Herri hau ez bait da inoiz normala izan!"

Ez dakit zer esan nahi zuen burutazio honekin, baina hezkuntza munduan, normalizazioak, gure hizkuntza, hezkuntza eta herri proiektua kolokan ipintzea esan nahi badu, ikastola aurka izango dute. Eta ez da harrizkoa Buesa jaunak ideia edo asmo hori bere barru barruan izatea, ez bait gara bere gustokoak.

Dena den, argi dugu zein den gure helburua; gure Hezkuntz Proiektua, irekia, euskalduna, etorkizunekoak, finkatzea eta garatzea. Hori da ikastolen lana, nahiz publiko nahiz pribatu. Eta lan honetan ez gaude bakarrik.

Beraz, izango ditugu geure bidean nahi ez ditugun zuloak, oztopoak eta hartxintxorak, baina seguru gaude, helburua garbi, izanda, lortuko dugula geure Hezkuntza Propioa. Horiz izango da guretzat normalizazioa.

**Joseba Aginagalde**

Arabako Ikastolen Elkarteko  
Idazkaria

Gogora ezazue aldizkari hau debalde banatzen dela. Etxean jaso nahi baduzue bidali zuen helbidea 1691 postakutxara



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria

**GEU GASTEIZ**

Gasteizko Euskaldunon  
Aldizkaria

**1691 Postakutxa  
GASTEIZ**

GEU elkartearen  
babesarekin

5.000 Aleko Tirada

Lege-Gordailua  
VI-582/92

**Zuzendaria:** Joseba Gorostiza **Erredakzio-batzordea:**

Iñigo Barruso, Xabier Etxaniz, Mikel Garmendia, Txema Millan, Patxi Salaberri **Kazetariak:** Leire Lopez de Aberasturi, Inaxio Lopez de Arana, Ismael Diaz de Mendibil, Olatz Irizar **Komikia:** Iñigo Sarasola

**Maketazioa:** Blanka Agiriano, Alex Badillo

**Publizitatea:** Martin Rezola **Argazkilariak:**

Lukas Etxeberria, Joseba Olalde, David Aguilar, Joseba Unzalu, Josu Txabarri **Kolaboratzaileak:** Agurne Aizpitarte, Asier Garro, Txipi Ormaetxea

**Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Onati)

GEU GASTEIZek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako enantziakizunak



## IZOTZ GARCIA

### Gazteak eta geroa

I

Gaurrengungo gazteek daukaten geroa ez da, ez on ez txarra soilik arraroa Beraiek hazi orde hazten da paroa Bizitza zaila bazen orain zailagoa

II

Ikasketa guztiak lehiotik behera ez dakit zertarako den gure karrera inork ez digu ematen behar dugun aukera hobe joango bagina arrantza egitera



### Postariak ekarriak

#### Ikastoleetako seme-alabak

Azken bolada honetan, Gasteizen ere, ikastoleen aldeko apostua erabatekoa dela esan daiteke. Guraso gehienek bide horri eutsi diote euren seme-alabentzat.

Hau honela, Euskara gazteen artean gehien erabiltzen den hizkuntza izan beharko luke. Errealitatea, aitzitik, bestelakoa erakusten digu.

Zein da arazoa? Sustraiak era txar batez zaintzen al dira? Oinarrizko zutabeak kili-kolo ote daude?

Gehienetan, euskara eskola-hizkuntza bihurtzen ari da. Hori, boto-pronton ez litzateke gauza txarrik izango, baina inoongo dudarik gabe, eguneroko bizitza eduki behar du islada. Bestela, jai dugu!

**Alberto Ortiz de Landaluze.**

#### Rigoberta Menchu-ri dirulaguntza

Kaixo lagunak!

Prentsan irakurri ahal izan duzue, Rigoberta Menchu-k herri indigenen bigarren bilera-topaketa antolatze lanetan dabil. Guk lagundu nahi izan diogu eta diru-bilketa kanpaina bat antolatu dugu.

Bake Nobel Sariak, kanpaina honetarako jasotzen den diru sartzeko guztien informazio zehatza izango du. Beraz anima zaitzete. Laguntza eman nahi baduzue hona hemen non egin:

#### RIGOBERTA MENCHU-RI DIRULAGUNTZA

«Herri indigenen bigarren bilera-topaketa»

Euskadiko Kutxa: 198.1.00536.9 - Berriozar, Nafarroa

Besterik gabe, Rigoberta Menchú Tum-en izenean jaso ezazue gure agurrik eta eskerrik beroena.

**elkarri**

elkarrizketa eta akordioaren aldeko giza mugimendua

## HEMEROTEKA

❑ «Geure poza, oso-osorik, tristura bihurtu da»

**Juanito Oiartzabal**  
(Everest-eko Arabar espedizioaren burua)

❑ «Euskaldunok hirueledun izan beharko genuke»

**Jean Haritschelhar**  
(Euskaltzaindiako burua)

❑ «Gizakumea nekez bizi liteke utopiarik gabe»

**Ana Lucia Billate**  
(Gasteiz antzeki taldeko kidea)

❑ «Alde zaharrak ez du bertan bizitzeko baldintzarik»

**Miquel Apraiz**  
(Arabako arkitektoen lehendakaria)

❑ «Alaveserako baliotsua naiz»

**Armando García Lázaro**  
(Alaves taldeko jokalaria)

❑ «Mendirik gabe, zuhaitz, oilagor eta iturririk gabe ezin ninteke bizi»

**Javier Etxepare**  
(54 urte, Michelin, langilea)

❑ «Momentuz antzerkian ez dut dirurik gastatu»

**Jose Ruiz de Azua**  
(Arlekin antzerki taldekoa)

❑ «TV-Vitoria-k, hiriari begira dagoen lehioa izan nahi du»

**Jesus Maria Rioja Briñas**  
(TV-Vitoria-ko zuzendaria)




### Futon altzariak

Goi mailako kalitatea

Barrancal,20 • Barrenkale,20  
Telf. 14 68 43 - GASTEIZ

**D**uela 10 urte Gasteizko Gaztetxea sortu zen Apezpikutegiarenak ziren lokaletan. Udalak lokal horiek eskuratu ditu berriki eta eraikuntza botatzeko asmoa adierazi du. Bi aldeen arteko elkarrizketek ez bide dute emaitza handirik izango. Udalak egindako proposamenak -Lokal berriak Korreria kalean baina zenbait muga onartuz gero (kontzerturik ez, barrarik ez,...)- ez ditu asetzen gazte hauen nahiak eta eztabaidak bere horretan dirau. Baina... zuek zer deritzozue?



**SUKALDEKO  
HALTZARIAK**

Manuel Iradier, 37

Tfnoa: 25 45 88

Faxa: 27 81 93

01005 - GASTEIZ



Cercas Bajas, 8  
Telefona eta Faxa 28 74 82  
01008 GASTEIZ

*Zer deritzozue...*

## Gaztetxeari ?

Gaztetxea sortu zenetik bera eta Udalaren arteko harremanak gora-behera franko ezagutu ditu. Laguntzarik ez dute izan, traba handirik ere ez.

Udalatxea Apezpikutegiaren jabe egin zenetik, ordea, baldintza gogorak ezarri omen dizkie gaztetxekoei: ordutegia betearazi, lekualdatzeko proposamena. Guzti honetaz zer esateko gutxi izan du hiritarrak. Geuk zeuon iritziak jakin nahi izan ditugu.

***Zein funtzio betetzen du Gaztetxeak?  
Dagoen tokian ondo al dago edo hobe Korreria kalean?***



**Javier Camus (Langabetua)**

1.-Kontzertuak badaude baina orokorrean ez dut uste kultura bultzatzen denik. Gehienak mozkortzera eta paso egitera doaz bertara.

2.-Nire ustez zuzenean ez du inor molestutzen, ixteko tranpa bat dela esango nuke. Dena den pentsamolde askotako gazteak daude eta gaztetxekoein bat ez datorrena ez dute onartzen. Beraz, niregait, aparkaleku bat egin dezakete lasai asko.



**Martin Fernandez de Matauko. (Jubilatua)**

1.-Dauden lekuan indarrez sartu ziren eta harrez gero ganberradak besterik ez dute egin. Gure garaietan errespeto gehiago zegoen. Ezberdina ginen

2.-Joan daitezela!... oso ondo iruditzen zait! baina doazen lekuan izan daitezela edukatu eta garbiagoak. Ni ez nintzateke batere harrituko botako balituzte zeren ez baitakizu zenbat denbora daramaten zakurkeriak egiten.



**Estitxu Ruiz de Gordoa (Ikaslea)**

1.-Kontzertuetarako ondo. Taldeentzako irteera bat da. Lagun batek talde batean jotzen du eta Gaztetxetik kanpo ez du aukerarik.

2.-Dagoen lekuan ez du inor molestutzen, aparte dagoelako. Korrerian baino hobeto dago bertan. Korrerian edozen aitzaki dela medio itxi egingo lukete. Udaltzainen ondoan jartzea ixteko bidea izan daiteke.

**GARNICA** 

**FERRETERIA ETA ETXERAKO TRESNAK**

Gorbea kalea 40 • Tfnoa: 24 18 73



**Kati Goikoetxea (Ikaslea)**

1.-Hainbat gauza egin ditzakegu berta: kontzertuez aparte, ikastaroak antolatu... edo lagunekin elkartu besterik gabe.

2.-Ez, dagoen lekuan ondo dagoela uste dut. Txapatu egin nahi dute eta horretarako aitzakiak jartzen dituzte: zarata, zikin-keria,... baina ez da hori benetazko arrazoia.



**Felipe Legarda Ugarte (Arotza)**

1.-Leku hori apezpikuarena zen eta alfer-alferrik zegoen. Orain gazteek, elkartzeko eta euren gauzak antolatzeko erabiltzen dute behinik behin.

2.-Astakeria hutsa iruditzen zait. Nori bururatu zaio hirugunean eta udaltzainen alboan jartzea? Dagoen tokia oso ona da: gainera independentea, ondoan inor ez. Honez gain, berriro ere dirua gastatzea zentzugabea da. Orain dutena konpon dezaten.



**Roberto Martinez (Zaldiketa irakaslea)**

1.- Hiria ohiana bezalakoa da eta ohianan, espeziaren bat desagertzean oreka eten egiten da. Honen funtzioa oreka ekologikoa mantentzea da.

2.-Egin nahi dutenak ez dauda ez hanka ez bururik. Dagoen tokia oso aproposa da, inor ez du moles-tatzen. Udaletxearen benetako nahia Gaztetxea itxi baino gazte mugimendua menperatzea dela esango nuke nik. Eta hori txarra da gizarte osoarentzat, baita berai-entzat ere.



**Luis Garagalza (Irakaslea)**

1.-Gaztetxeak, gizarteak ez dituen aukera alternatiboak ematen dizkie gazteei. Beraz, gaztetxearen funtzioa gazte hauek bideratzea izango litzateke

2.-Ez dakit, ez dut arazoa sakonetik eza-gutzen. Baliteke jende helduari zerbait molestatzea baina argi dago Gaztetxea ez dela molestatzen duen bakarra. Dena dela, badi-rudi mobida hori kontrolatzeko saioa dela.



**Mari Carmen Berrozi (Bulegaria)**

1.-Gazte jendeak elkartu ahal izateko lokalak oso garrantzitsuak dira. Noraezean ibili beharrean, elkartzeko tokiren bat izatea oso ona da.

2.-Egia esan ez du logika handirik eraikuntza berean Gaztetxea, Udaltzainak eta Osasun zentro bat jartzeak, arraro samarra da. Batzutan komentario txarrak entzun ditut gazte hauek baina hortik pasatu naizean inoiz ez naute molestatu.

**azkarprint**

lehen **fas** perforante

Cercas Bajas, 4

Tfnoa:  
27 92 51


Fax:  
25 42 10

**Inprenta zure zerbitzura**

- Eskutxartelak
- Fakturak
- Eranskailuak
- Gonbite txartelak
- Aldizkariak
- Txartelak

**Zerbitzu bereziak:**

- Paper birtziklatua eta ekologikoa
- FOTOKOPIAK KOLORETAN
- Kamisetetan estanpaketak



# Bazenekien...?

... Garai batean Gasteizko eraikuntzarik garaiena izan zen Zaramagako dorreak (14 pisu) barne-egitura guztia burdinezkoa duela?

... Handik hurbil, Fray Francisco ibilbidean bertan dagoen "Buruko minen etxea" 1901ean eraiki zutela?

... Gasteizko etxerik estuena Castilla kalearen hasieran aurkitzen dela?


... Gaur egun hirian daukagun "etxeorraz" altuenak 15 pisu baino ez duela eta Judimendi auzoan dagoela?

... Gure hirian euskal izena gordetzen duten etxeen artean El Prado parkearen aurrean dagoena dela zaharrenetarikoa bat?

... Hiriko etxerik bitxiena "Villa Sofía" izenekoa dela eta han modu eklektikoan biltzen direla estilo eta materiale desberdinenak: harriak, adreiluak, axuleiuk, leiho gotikoak, minarete antzekoak, etab.?

... Kanpoko aldean, leiho baten gainean, "Echezarra" izena jarrita duen etxe hori Napoleon enperadoreak berak hartu zuela egoitza gisa 1808ko azaroaren 5etik 9ra bitartean?

## BARNETEGIA - LESAKA



### • URRATS GUZTIAK

AZAROAK

18

ABENDUAK

23




Tfnoa: 28 89 22



# Estibalitz:

## Isiltasunean bizitzeko aukera



**G**asteiztik oso gertu, Estibalitzeko monastegian gure herri eta hirietako ohizko txalapartatik at bizi den talde bat badago. Hamar praile benediktiar Arabako monastegi honetan otoitzaldian bizi dira besteok eguneroko bizitza istilutsuarekin jarraitzen dugun bitartean.

LIBURUDENDA ESPEZIALIZATUA PAPERDENDA

**STUDY**

STUDY & STUDY & STUDY  
berriak.

Foruak, 12   Florida, 29   Lobaina, 1  
☎ 14 37 80   ☎ 14 50 94   ☎ 14 19 50

**EROS**

MARKO-JARTZEAK • POSTER ETA LAMINAK

Santiago kalea, 39  
☎ 26 09 82

# Irla bat Gasteiztik 6 kilometrotara



**A**stebukaeretan jendez gainezka egoten bada ere, Estibalitzeko monastegiaren itxura zeharo ezberdina da asteko edozein egunean. Elizara eramaten duten iskilarak igotzen dituzun heinean isiltasuna nagusitzen doa, kotxerik ez, jendearik ez, isiltasuna soilik. Gezurra dirudi hortik sei kilometro eskasera Gasteiz dagoenik, bere hiriko soinu guztiekin.

Bertako monastegian bizi diren hamar benediktiarrak isiltasun honekin bat egiten dute; izan ere isiltasuna dute bere bizitzako ezaugarri nagusi bezela.

Goizeko sei eta erdietan jeikitzen dira praile benediktiar hauek, hortik hamabost minutura egingo duten lehenengo otoiizerako. Hiru ordulaurden irauten duen otoiitz hau elkarrekin egiten duten irakurgaien otoiitza dugu. Ondoren beste ordu erdiz bakarkako otoiitzaldia izaten dute zortzirak eta laurdenetan gorespentak eta mezak hasi aurretik. Bedera-tziak eta hamarrerako gutxi gora behera gosaldu egiten dute, ondoren bakoitzak bere lanari eusteko. Lan hauek era askotakoak dira: sukalde lanak, atari lanak, oilategi eta baratzako lanak, enkuadernazio lanak eta abar. Elizan ere lan egiten dute, mezak prestatuz, ezkon-tzak prestatuz, kanpoko jendeari kasu eginez...

“ Isiltasuna da bertako ezaugarri nagusia ”



**HEGOALDE**  
euskaltegia.

Florida 58, behea. Tfnoa. 284196 - 01005 GASTEIZ



**ARTEPAN**  
Artisau  
Okindegia eta Goxotegia

Jesús Guridi, 2 • Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37  
01005 GASTEIZ

Praile hauek arazo nagusi bat daukate, jende gazte gutxi hurbiltzen dela monastegira. Lehenago gazte taldeak joaten omen ziren udan elkarbizitzak edo konbibentziak egitera, baina

“**Hospederia: lasaitasuna gozatzeko aukera ederra.**”

badira bi urte holakorik izan ez dela. Praile hauen ustez bere bizitza honen baloreak ez ezagutzea litzateke honen erru. Isiltasuna, otoitza, lana, elkartasunezko bizitza eta barreneko bizitza dira bizitza honen oinarriak. Otoitz eta lanen bidez bere barrena lasaitu eta paketzen omen dute. Bizitza mota hau errealitateko arazoetatik urruntzen duela pentsa daitekeen arren, benediktiar

## Benediktiak guztiak euskaldun

**E**ra berezi honetaz bizi diren hamar praile hauek euskaldunak dira; hauetako bat, priorea iparraldekoa da, Asparrengoa hain zuzen ere. Beste zazpi gipuzkoarrak ditugu eta gelditzen diren geste biak arabarrak, hauetako bat Trebiñotarra.

Benediktiar hauek euskaldunak izateaz gain euskaltzaleak ere ditugu. Duela hogeitamar urte inguru Gasteiz aldean euskaltegirik ez zegoenean Estibalitzeko monastegian euskarazko klaseak ematen ziren. Bertan ikasi zuten Gasteiz aldeko lehenengo

hauek bere baloreak munduari argitasuna emango dion indarra direla uste dute.

### Hospederia

Bizitza mota hau bizi nahi dutenek aukera ederra daukate monastegi honetan dagoen hospederian. Era guzti-etako jendea hurbiltzen da Estibalitze-

ko monastegiraino otoitzaldian eta isiltasunean egun batzu igarotzera, apaizak, gazteak eta batez ere erlijiosoak. Monastegiraino hurbiltzen diren guztiak oso berezia den zerbaiten bila doazela komentatzen digute praileek, eta hauek oso gustora hartzen dituzte. Izan ere, beraien helburu bat bere bizitzaren zati bat besteei erakustea eta ematea bait da. □



euskaldun berriak gure hizkuntza. Gaur egun ez da inor hurbiltzen Estibalitzera euskera ikastera, jadanik euskaltegi ugari daudelako Gasteizen.

Euskerari etorkizun oparoa ikusten diote praile hauek, haurrak gero eta euskaldunagoak dira eta gazte jendea gero eta gehiago ari da hurbiltzen euskarara. Euskararen aurkako joe-

rarik ez dute somatzen inguruko herrixketan. Guzti hau mezetan ere badu bere islada, euskerak gero eta oiartzun gehiago bait dauka Estibalitzeko elizan ematen diren mezetan. Beraien artean egiten dituzten otoitzaldietan ere otoitz ugari euskaraz egiten dituzte, denak egitea ezinezkoa baita oraindik ere. □

**Benito Ginea**  
liburudenda

Benito Ginea, 2 • Tfnoa: 25 75 14  
GASTEIZ

**Ardatz** itzulpen eta euskara zerbitzuak

Arana, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ

# Garai bateko Bilbo Plaza



**N**ork esan du Gasteiz ez dela aldatu. Hona hemen froga txiki bat. Beheko argazkian Postas kalea Agirre lehendakariaren Aldaparekin elkartzen den lekua. Inguru honetan Postetxea aipatu beharra dago, garai bateko Bilboko plazaren lekua bete zuelarik. Eraikin honek eskualdeko arkitektura ereduari jarraitzen dio, Euskal Herriko dorretxeen usadiozko arkitektura goratu nahian osatua.

## Argazkiak:

**Goian:** Mende hasieran Enrique Guinea Makibar-ek egina (Artxibo)

**Behean:** Hilabete honetan bertan egina



## GUREA jatetxea

Konstituzio Enparantza, 10  
Telefona: 24 59 33

## VDABERRIA

elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguay, 9 • Tfnoa: 24 49 65  
Abendaño 48 • Tfnoa: 22 63 12

GASTEIZ

# Ana Lucia Billate eta Txema Blasco:

## urteetako lana eta geroko arrakasta



**A**na Lucia Billate eta Txema Blascok elkarrekin lan egin zuten duela hogeit bat urte Gasteizko Nazioarteko Antzerki Jaialdian antzeztu zuten lan batetan. Aurten "Pasionaria, ¡no pasarán!" eta "La huella" lanak aurkeztu dituzte Antzerkialdian, beraiek "lan zail eta gogor" gisa definitu dituzten lanak. Txema eta Ana orain jasotzen ari dira urte askotan zehar egindako lanaren emaitzak.

# Ana Lucia Billate

## «Tavoraren 'Pasionaria'n lan egiteaz harro nago»

**G**asteiz antzerki taldearen **Pasionaria, ¡no pasarán!** antzezlan da zalantzarik gabe, aurten Euskal Herrian ikusmin handien sortu duen lana. Gasteizko Antzerki Jaialdian ikusgai izan dugun lanaren gaia, zuzendaria eta ikuspuntuak zer esan ugari sortu dute. Honek ordea, ez du Gasteiz taldearen aktoreengan urduritasunik sortu. «Ikusmira sortu baino beldur handiago ematen du inor antzerkira ez joateak» uste du Ana Lucia Billate Pasionariaren rola egiten duen aktoreak.

Anak azaltzen duenez gainera taldeak ez du komunikabideek erakutsi duten interesa bultzatu baina ikusleek lan hau oso modu berezian hartu dutela onartzen du. «Nik ez dut aurretik sekula horrelakorik ikusi baina Euskadin jendeak berea bezala hartu du lan hau» adierazten du Ana Billatek.

Gasteiz taldearen lan hau ez dela Dolores Ibarruriren biografia azpimarratzen du Ana Luciak, «ez dugu lan naturalista bat egin eta ziurrenik beste zuzendari batek beste modu batez jorratuko zuen gaia» gaineratzen du.

Salvador Tavora zuzendariari buruz hitz egitean berak egindako lana goraipatu eta honen agindutara lan egitearen garrantzia aipatzen du Ana Lucia Billatek. «Hemendik aurrera agian Pasionariaren biografik idatziko dira, bere bizitzan oinarritutako telesailak ikusteko aukera izango dugu; hala ere Tavorak honi buruzko lan bat egin zuela gogoratuko du jendeak eta nik antzezlan horretan lan egiteaz harro nago» azaldu du Anak.

“Pasionaria”-ren prestaketak biziki hunkitu du Ana batetik,

Tavorak lan handia eskatu diolako eta bestetik, Pasionariaren indarra gertu sentitu duelako. «Dolores Ibarruri hor dagoen euskal emakume bat da eta bere irudiak beti jarraitu nauela esan daiteke» azaltzen du Ana Luciak: «Madrilen lanean nengoela hil zen emakumea eta gero lan hau nere patuan zegoela esateko gauza ugari gertatu zaizkit».

Salvador Tavorak zuzendutako lan honekin Gasteiz taldea denon ahotan dagoela entzutean Anak orain arte egindako lana gogoratzen du: «agian jendea antzezlan honi esker konturatzen da lan handia egin dugula baina egia esan, lan eta lan gabiltza azken urteetan

ez orain bakarrik». “Pasionaria” aurretik egindako lan guztiaren garrantzia aldarrikatu arren antzezlan honek zenbait ate irekiko dituela onartzen du Ana Lucia Billatek.

Egungo krisi ekonomikoak ez duela Gasteiz taldean eragin handirik izan uste du aktoreak, «nolabaiteko eragina badu gure inguruan gertatzen ari dena ikusten dugulako baina besterik ez». Hau lortzeko ordea asko arriskatu behar izan dutela argi utzi nahi du Billatek, «egoera honetan antzerkia utzi edo guztia arriskatu behar genuen, eta arriskatu dugu, etxea arriskatu ere bankuak ez baitu barkatzen».

Ana Lucia Billate ez da, oraingo honetan aurtengo Antzerki Jaialdiko balazozioa egitera ausartu, lana dela eta antzezlan gutxi ikusteko aukera izan duelako. 1981. urtean **Denok kooperatibak** jaialdia antolatu zuenean Gasteizko Antzerkialdi honek maila altuena lortu zuela uste du Anak, «hura gainditzea oso zaila iruditzen zait baina orain Principal Antzokia daukagu, honek garrantzi handia izango duela uste dut; antzokia jaialdiaren oinarria izango da, antzerkiaren etxea bilakatu behar da». Antzokiaren eraginez edo, «Jaialdiak lehen urteetan zeukan berotasuna» berreskuratzen ari dela iruditzen zaio Billateri.

Anaren ustez Antzerkialdiak urtean zehar egiten den programazio egokiaren emaitza izan behar du, «hau izan da beti antzerki munduan gabiltzanok aldarrikatu dugun politika» gogoratzen du. Gainera «Principal antzokia daukagunetik ez dago gauzak beste ere batera egiteko aitzakiarik» esaten du Ana Luciak. □



“Krisi egoera honetan antzerkia utzi edo guztia arriskatu behar genuen... eta arriskatzea aukeratu dugu”

# Txema Blasco

«Egun zineman buru belarri zentratuta nago»

**L**an egiten dagoen bitartean Txema Blascori ez zaio besteek egindako lanak ikustera joarea gustatzen, «*atsegin dudan zerbait ikusiz gero esku artean dudan lanean eragingo duela bait dakit eta kanpoko eragin hoiek gabe lan egitea nahiago dut*» azaltzen du aktore gasteiztarrek. Horregatik, eta Celes Duarteren zuzendaritzapean egindako «**La huella**» antzezlanaren urriak 21 aurkeztu zutela kontutan hartuz, aurtengo Antzerkialdiko lan gutxi ikusteko aukera izan du Txemak.

Hala ere, Arlekin taldeko kideek Jaialdia sendotu egiten dela uste dute. Gasteizek urtean zehar duen antzerki programazioarekin berriz, kritiko agertu ziren Arlekin taldekoek. «*Ikusleak jaialdiaren inguruan batzen dira eta gero urtean zehar hutsunea nabaritzen*» dela uste du Celes Duarte «**La Huella**» lanaren zuzendariak.


Era berean erakundeek «*Gasteizko jaietako egunetan bakarrik egiten diren emanaldiak saritzen*» dituztela salatu eta «*programaziorako erizpi-deak argi ez daudela*» adierazten dute Arlekin taldekoek. Urtean zehar zenbait lan ikusteko kanpora jo behar dutela azaltzen du Duarterek, «*Antzerkialdian, Madrilen oraindik lortu ez dituzten lanak ikusteko aukera daukagu*».

Gasteizen egiten den antzerkiari buruz galdetuta bertako taldeen maila azpimarratu dute antzerkigileek. «*Bekereke, Teatro Paraiso, Porpol, Gasteiz... ezagunak dira eta Estatuan lan asko egin dute. gainera, mota askotako antzerkia egiten dute*» azaltzen du Juan Luis San Martin zuzendari laguntzaileak.

Talde hauen ondoan dauden talde amateurren lana azpimarratzen du Txema Blascok. Gasteizen horrelako hamar talde baino gehiago daude eta «*honek antzerkiaren harrobia ziurtatzen*» duela uste du.

Arlekin taldeak antzerkialdian aurkeztutako «**La huella**» antzezlanaren britaniar zine beltzeko tradizioan oinarritutako lan gisa definitzen du Txema Blascok. Halere, zuzendariak lanean irrifarrerako lekua uzten saiatu dela azaltzen du.

«**La huella**» taularatzearen ideia Celes Duarterena izan zen, «*aspaldi neukan testu honekin lan egiteko gogoia eta egiteko aukera zegoela ikustean*».



“ Bekereke, Teatro Paraiso, Porpol, Gasteiz... ezagunak dira eta gainera, mota askotako antzerkia egiten dute ”


*aurrera jotzea erabaki genuen*». Celes Duarterek berak egokitu du testua antzezlan eta filmearen gidioiak batuz eta landuz. «*Aurretik egindako antzezlan eta filmearen oinarritu garen arren erabat lan ezberdina egin dugula uste dut*» azaltzen du Celesek.

Lan honen prestakuntza gogorra izan omen da: «*zuzendaritza eta aktoreen artean belaunaldi bateko aldea dago eta aktoreek normalean erabiltzen duten teknika alde batera utzi eta beste bat barneratu behar izan dute*». Txema Blascok «*orain arte egin ez genuen lana egin behar izan dugu eta barruan daukagun guztia eman arren helburua lortuko genuen galdetzen genion geure buruari*» azaltzen du.

Txemak Andrew-ren rola egiten du antzezlanean; arazo handiak dituen ingeles aristokrata batena, harro ibili arren bere bizitza gain beheran dagoen gizona. «*Hori da nere zalantza, gain behera hori sinesgarria egiten dudana ala ez*» azaltzen digu.


Taldea urte betez egon da lan hau prestatzen eta taldeko besteek txantxetan esaten dutenez «*Txema Blascok izan du gehiegizko luzapen honen erru gehiena*». Izan ere, eta urte askotan zehar antzerki-gintzan aritu ondoren Txemak zineman sartu da buru belarri eta zinemagintzan egindako lanak «**La huella**» prestatzeko denbora kendu dio.

«*Azken aldi honetan zinemagintzan zentratu nago eta horrela jarraitzea espero dut*» esaten du Txemak. Madrilen bere izena gero eta ezagunagoa egiten ari dela onartzen du eta berak esaten duenez «*atsegin ala ez Madrilen daude aukera guztiak*». □



**MOBILIARIO kide**  
**apaindura**

Cercas Bajas, 27 • Tfnoa: 14 41 95 • 01008 - GASTEIZ-



**BITORIANO**  
**ZUIA • ARABA**  
**TEL. 43 00 73**






Zaldiaran Enparantza, 10 • GASTEIZ

**arcaya**

Portal de Villarreal, 22-24  
Tfnoa: 26 06 58  
Portal del Rey, 21  
Tfnoa: 28 08 69

SOINUA  
IRUDIA  
ARGIZTAPENA  
ELEKTRAGAILUAK  
OPARIGAIK

## LIBURUAK



### UHALDEAN

Françoise Xénakis

Itzultzailea: J.L. Alvarez

Santacristina

Txalaparta

Françoise Xénakis Blois-en jaiotako idazle eta kazetaria duzue. Liburu honetan -itzultzaileak esaten digunez- Amodio eta duintasunaren errusuma unibertsalera eramango gaitu.

### EGA Ikaslearen liburua (I eta II) IKA

EGA prestatzen ari zaretenontzako ariketa bilduma aparta. Orotara 920 orrialde ariketaz beteak bi tomotan banatuta. Lau trebetasunak eta hizkuntz formak lantzeko nahi adinako ariketa.



## HONTZA

### Gazte-musika

## Rohan: Gasteizko alderik gogorrena

Rohan, laukote hevy dela medio, Gasteizera hurbiltzen dira Rock'n Roll soinuak zorrotz eta gogorrenak. Duela bi urte jaio zen talde berri hau sortzeko ideia: José Ramón, Javi, Alberto eta Roberto partaideak zirelari. Hurrun gelditzen dira talde iraunkorrari eusteko alferrikako ahaleginak. Egun, eta taldekide ezberdinen joan-etorriak ahaztuta, lan eta talde serio izatea finkatzen doa. Horrela agertzen zen, iazko neguan, lehengo maketa, «Esclavos» izenekoa. Grabaketa hone-tan biltzen ziren aurreneko kantak gaur egungoekin batera. Lan motza bai, lau kanta besterik ez, hala ere erakargarria; diru gutxiz gauza zora-garraiak egin daitzekeenaren adibidea. Anplifikadoreak topera, gitarra zorrotzak,

abiadura handiko erritmoak, batzutan rap-arekin jolasten, bestetan hardcore-ari helduz. «Justicia», «Parásito» edo «Esclavos» deituriko abestiek gogorarazten digute rock gogorra oraindik bizi dela Gasteizko kaleetan: musika gordina, mezua bilutsik, konformisten kontra beti. Dena den, umorea ez dute inoiz galdu eta bere abesti serioen ondoan betiko «Clavelitos» -«Capullitos» bilakatu-entzun ahal izango dugu edota «Bel Air-eko Printzea»-ren rap-aren notak.

Dagoeneko, emanda daukate aurrerantzako estraineko urratsa. Entzulegoak bide honetatik jarraitzeko baime-na ematen dien ala ez espero beharko dute. Hala ere Rohan taldekoek garbi



dituzte aukeratutako ibilaldiaren zailtasunak. «Gaurregun oso gaitza da musikaz bizitzea», aitortzen ziguten, baina gozatu eta dibertitzeari ezin de inork uko egin.

Joxemari/Txabi Arnal Gil

**Muluma**  
MASAIA - QUIROMASAIA  
Kote Zubizarreta

Olagibel, 20 • Telefonoa 25 92 06



**LARRUKI**

Larruaren  
Artisautza

KANPOKO ARTISAUTZA, BITXIKERIAK

Kutxilleria, 26  
Tfnoa: 28 38 86

01001-GASTEIZ

KOADROAK  
MOLDURAK  
LAMINAK  
MARRAZKIAK

**zurbeltz**

MAGDALENA, 2 • TFNO: 13 27 20

# hAurRAK

## Buru-hausteka


**MIKEL** artzainak hirurogeita hamaika ardi zituen. Goizean, berriz, artaldea ikustera joan denean ustegabe galanta izan du. Atzo otsoek hesia apurtu eta hamabost hil zizkioten. Zenbat ardi geratu ote zaizkio Mikel gizarajoari?

1



2

**ZENBAT** aldiz ken daiteke 1, 2.347 zenbakiari?



3

**NOLA** harri beharko dituzu 1etik 9ra doazen zenbakiak, beraien gehiketak ondorio hau emateko?

$$\begin{array}{r} \square + \square + \square = 14 \\ \square + \square + \square = 12 \\ \square + \square + \square = 19 \\ \hline 17 \quad 18 \quad 10 \end{array}$$



4

**ESALDI HAUETAN** hiru errore daude:

- 1. Perurena harakina da.
- Otxandio eta Legutio Bizakian daude.
- Errioxan txanpaina egiten da.
- Maritxu Berritu donostiarra da.
- Anjel Lertxundi eskal musikaria da.
- B. Atrazaren benetako izena Joseba da.
- Koldo Mitxelena gasteiztarra da.

5



**INDIANA JONES**en lagun batek arkeologia atsegin eta txanpon zahar bat aurkitu zuen. Gure lagunak, Kristo baino 412 urte lehenago egina dagoela jartzen duela dio. Nire ustez Indianaren lagun hori gezurretan ari da, zergatik?

Erantzunak hurrengo orrialdean

**den-dan**  
haltzariak

Gerardo Armesto, 2 • Tfnoa: 24 38 49  
01008 GASTEIZ

*ditare*

MIHISEDENDA

UME ETA EMAKUMEENTZAKO  
LENTZERIA ETA BARRUKO ARROPAK

Cruz Blanca, 13 • GASTEIZ

### PATXI errementaria

**M**unduan asko bezala, Aralar inguruko herritarra batetan errementari bat bizi zen. Patxi zuen izena eta oso gaiztoa omen zen.

Horregatik, behin, Zart izeneko deabru bat bibali zioten Infernutik. Errementari hura, nola edo hala, Infernura eramateko agindu zioten.

Eta horrela, goiz batetan, Zart, Infernua utzirik, Patxiaren sutegiraino joan zen.

Patxi lanean ari zen: hauspoari eragin, txingarrak astindu, aizkorak konpondu, sutan burnia gorritu...□



#### ERANTZUNAK

1.Hildako hamabostak	lea da eta K. Mitxela-	8 + 4 + 2 = 14
2.Behin 2.347 ken bat = 2.346	na ez zen gasteiztarra	6 + 5 + 1 = 12
4.Legutio Araban dago, A. Lertxundi idaz-	5.Txanponak ezin duela Kristo aurreko datarik izan, beren garaikoa izango zuen)	3 + 9 + 7 = 19
		<hr/>
		17    18    10



UNESCO-k aspaldian gomendatu  
**PATXI**  
errementaria

zuen herri baten kultura garatzeko bertako kultura ezagutu behar zela. Euskal Herrian gure ipuin eta kondairak ezagutu beharko genituzke eta helburu horrekin hasi ziren kaleratzen 1980ean Axut saileko liburuak.

Patxi errementaria dugu sail horretako lehena, eta ipuin herrikoi guztien xarma eta interesa izateaz gain, guztiz entretenigarria da. Joxe Migel Barandiaranen testuetan oinarrituz, Sagrario Yarnozek moldatu zuen ipuin hau eta Jesus Lucasek ederki ilustratu.

Ume txikiei kontatzen oso aproposak dira liburu hauek, eta irakurtzen hasten direnerako ere guztiz egokiak. Ondo pasatuz gure kultura ezagutu! □

## IBUSGAR'I

### t i n t a t e g i a

Alfonbrak, mantak eta edredoiak, narruzko arropak, berokiak eta lumazko aropetan espezializatuak

DOMINGO BELTRAN, 26 • JUDIMENDI, 20  
TFNOA 14 19 45 • 27 05 83 • GASTEIZ



## GORETTI

### ILEAPAINDEGIA

San Antonio, 29-Behea  
Tfno: 13 18 55  
01005 - GASTEIZ

# EVERESTeko bi aurpegi

**E**verest-eko jainkoek gutako bat eraman nahi izan dute. Ez genuen sinetsi nahi, baina zoritxarreko berria Nepal urrunetik heldu zitzaigun. Everest-ek behin eta berriz erakusten du bere indarra, badirudi berak nahi duenean gizakia menperatzen duela. Honetan mina hurbiletik sentitu dugu, Antonio Mirandak amets eta lagun ugari utzi ditu bidetik. Geure bihotzetan tristura nagusia bada ere, honi Antoniok ahoan beti zuen irribarrearekin egingo diogu aurre. Espedizio arabarraren kidea den Juanito Oiarzabalek gailurra egin zuen, hala ere Toñoren ezbeharrak lortutakoa ahazterazi digu.





**A**ntonio, GEU GASTEIZekoek zuri omenaldi bat egin behar dizugula pentsatu dugu. Ez dakigu zuri gustatuko zaizun, baina merezi duzula argi dugu. Zuri buruz hitz egitea ez da nolana hiko lana, baina datozen lerroetan zu izango zara protagonista.

Antonio Miranda zure benetazko izena da, dena den zure bizitzari gainbegirada bat eginez, "Txiki" eta "Toño"-taz ere hitz egin digute. Zure haurtzaroko lagunekin hitz egin ahal izan dugu, eta esan

digutenez, Abetxukoko familia batean hazi eta hezitu zinen. Abetxukon zure betiko laguntaldea aurkitu dugu, han bizi izan zara orain dela gutxi arte, auzo -edo zergatik ez?- herri hartan ezagutu zenituen lehendabizikoz natura eta mendia... Egitan, Toño!, han asko gogoratzen zaituzte, zu bezalaxe, badakite zer den Abetxuko bezalako herriska

## ANTONIO MIRANDA

### Abetxukon sortutako hazia



**ORAIN** dela 35 urte jaio zen Antonio Miranda. Bere gurasoak Andaluziatik Gasteizera 60ko hamarkadaren hasieran etorri ziren. Oso familia umila zen, eta Abetxukorantz abiatu ziren etxearen bila. Antonio anaia nagusia zen, bere ondoren bi arreba eta anaia bat etorri ziren mundura. Azken honek Juantxu du izena, eta bere anaia bezalaxe, mendia du oso gustoko.

Mirandak "Luis Eusebio" ikastetxean burutu zituen O.H.O.-ko ikasketak. Garai hartan arrunta zen 14 urterekin lanean hastea eta gasteiztar honek zurgintzan aurkitu zuen lanbidea. Gero beste ogibide batzu eduki zituen, besteak beste metalurgia lantegi batean edota egun zegoen gasolindegian.

Abetxukoko lagunek "Txiki" deitzen zuten. Ezizenaren zergatia bikoitza zen: Antonio laguntaldekotxiarena zen, adinaz zein altueraz. Abetxukon

mutil koskorren aisia betetzeko, mendi talde bat eratu zen, han mendiaren lehen ikasgaiak barneratu zituen Mirandak. Orduan 13 urte zituen, 15ekin Pirinioetara joan zen lehen aldiz, eta 16 urterekin, mendi taldeko mutilarik txikiaren arduraduna zen. Ezagutzen zuten guztiek azaldu digute mutilek asko maite zutela eta beraiekin jolasean eta txantxetan zebilela beti.

Antonio eta naturaren arteko harremana estutzean, zirrara berrien premia agertu zen. Gauzak honela, Miranda Arabako Talde Espeleologikoaren kide bihurtu zen. Lagunek garai hura ere gogoratzen dute, eta aitortu digutenez, Antoniok Gorbeiaiko aldapetan kobazulo bat aurkitu zuen. Honi "Acero" izena eman zion, baitan ibaia zegoen, eta 60 metro ingurukoa zen.

Mendizale honek kobazuloetatik Eginoko hormetara egin zuen salto. Eskalada egiten trebea zenez, Arabako

Eskalada Eskolan irakaslea izatera heldu zen. Pausoz pauso, baina etenik gabe, munduko horma ezberdinetatik zintzilik egon da Antonio. Egun curriculum motza bazuen ere, Euskal Herrian zegoen onenatariko bat zen.

Egino, Pirinioak, Alpeak, Andeak, Hidden Peak, Huandoy, Gasherbrum II, Trangoko dorreak, Everest... Leku guzti hauetan gora egin zuen Toño (hónela ezagutzen zuten eskalada munduan). Harkaitzetan nahiz izotzean oso eskalari ona zen.

Miranda bezalako gizakientzat mendia bizimodua da, eta argi dago gustatzen zaiona egiten galdu duela bere bizitza. □

# Cervecería Alemana

Gerardo Armesto, 3 • (Gasteiz etorbidearen ondoan) Tfnoa: 13 29 88 • GASTEIZ

SALTXITXAK  
KAZOLATXOAK  
SANDWICHAK

**MIKO**  
izozkiak

batean jaiotzea. Ez dute zuk egindako lana ahazten.

Zutaz galdetzen hasiz geroztik, gauza politak besterik ez ditugu entzun. Agian pentsatzen duzu behin hil eta gero, betiko kontua dela hau, baina ez dugu uste zure kasua denik. Hitz goxo hoiek entzun nahi dituzu?. Badaezpada botako dizkizugu. Ekintzarako beti prest zegoen mutila, herabetia, narritaria, mutil koskorrek maite zuten, arduraduna... Abetxukoko mendi taldean ezagutu zintuzten lagunak dira.

Hamalau urte zenituela, ikasketak utzi eta zurgintzan hasi zinen, etxera soldata eraman behar zenuen... Giro hartan mendia ezagutu zenuen, igandero igandero mendira joaten zineten. Gogoratzen duzu?. Javier Agirre, zure lagun batek, azaldu digu zelan ibiltzen zineten Abetxukokoak Dato kaletik zuen abestiak kantatzen. Noski, menditik zentozten. Abetxukokoak zineten, baita harro egon ere. Guzti hau zure aurreneko urratsak izan ziren. Gero mendia zure etxe bihurtu zen, mendian utzi dituzu



**Goian:** Eskuineko izkinean Antonio mendizale lagun talde batekin.

**Behean:** Zeledoia ospatzen mendian

**Ezkerraldean:** Lehendabiziko mendi irteerak eskolako lagunekin

**GILTZA ARBA**  
ZERRAILDEGIA

LARRIUNETARAKO ZERBITZUAK 24 ORDUZ  
zerrailak, giltzak, atekak kotxeak...

Tfnoa: 945-26 57 29

Jose Mardones, 7  
01004 GASTEIZ

**MUGA**

MENDIA, ESKALADA ETA BIDAIETARAKO MATERIALEA.  
LIBURUDENDA ESPEZIALIZATUA.

Plaza Nueva, 3  
Tfnoa: 14 63 25 • 23 05 57  
GASTEIZ

**Noresta**

Paulino Caballero, 41  
Tfnoa: 15 14 26  
IRUÑEA

zure ametsak, zure burutik zebilen Patagonia ere han geratu da.

Ez duzu inoiz esan ze trebea zinen har- kaitzen aurkako norgehiagokan. Hala ere, ireki dituzun bide guztiak hor daude, mendietako hormek badaukate zure indarraren berri, bestela galdetu dezaio- tela Huandoy-ri ala Norvegiatarren Espaloia-ri. Eginoko harkaitzek ere ondo ezagutzen zaituzte, han makina bat laguni irakatsi dizkiozu eskaladaren lehen sekretuak. Zure abiadura jarraitzea ez zen lan erraza... Antza denez, ona zinen, guk ez dugu hau asmatu. Are gehiago, onenatariko bat,

Beno, beno badakigu, ez da hainbes- terako.

Ah! Ahazten zitzaigun... Espedizio- koak itzuli dira Himalayatik. Zu zeunden guztien gogoan, han ere zure senitar- tekoak ziren malkoei eutsi ezinik. Ez du ematen gailurra lortu duzuenik, argaz- kietan aurpegi serioak dira nagusi, eta ospakizunak ez dira benetazko ospaki- zunak.

Zuri agur esan aurretik, anekdota bat kontatzen utzi behar diguzu. Nepalerantz abiatu baino lehen, Diputazioko eskai- leretan argazki batzu atera zizkizueten, gogoratzen duzu ezta?. Ba, argaz- kilariak adierazi digunez, makina bat argazki bota behar zituen, zu Atxo Apellanizen atzean izkutatzten zinelako. Zuri protagonismoa gustatzen ez zitzaiz- zulako froga garbia.

Bukatzeko, barkamena eskatu behar dizugu. Badakigu orrialde hauek zuri eskaintzea ez duzula gustokoa izango, baina zure lagunek eta geuk egin behar dugula erabaki dugu. Hurrengorarte Antonio! □

## GAILURRETIK IKUSITA

# Apaltasun berezia

**EZIN** dut saiestu, arabarrek Everest-en gauzatu duten helburuari buruz hitz egitea Antonio Miranda oroigarrian kontutan eduki gabe. Harritutak utzi digu duela egun gutxi ezagutu erazi zitzaigun Espedizio arabarraz zoritxarreko berriak. Espedizio honen kidea zena Antonio, burutzen zuenean lehenengo saialdian Atxo Apellaniz eta Juanito Oiarzabalekin batera Everest-eko gailurra heriotza aurkitu zuen, denek dakigunez jauskera bat edukiz, amildegiz zen 8000 milla metrotik.

**ANTONIO** mendigoizale giroan oso ezaguna izateaz gain, gasteiztar beste alor ezberdinetan ere oso preziatua zen. Noski denek bazekiten eskalatzaile zela eta batez ere mendi eta naturarekiko zeukan lotura apartekoa zela.

**HAIN** eskalatzaile trebea zen Antonio, inork ez zukeen zalan- tzarik ipiniko Everest-eko hel- burua lortzeko gai zenik, zein beste mendi oraindik zailagoak bere gustokoa izanez gero.

**AZKEN** urteak batez ere izan ziren Mirandarentzat eskerroneko eta adierazigarrienetakoak. Zaila bada ere helburu bat gauzatzeko eskaladan, babes-emalerik eskura- tzea, Antonio ez zen inoiz beldurtu. Bere ezaguna zen apal- tasun bereziarekin, aurrean jartzen zitzaizkion oztopei aurre egiten zizkion, gehienetan gainditzea lortzen zuelarik. Urteen zehar irabazitako esperientziarekin arrakasta nabarmenak lortu izan ditu Antoniok, hain zuzen ere oso entzuna izan dira Estatu osoan Trango mendia Noruegoen espoloitik eta Perun herrialdean soilik eskalatu zuen Huandoy hegoaldekoa iparraldeko hormatik.

**ORAIN** ohitu egin beharko gara bera gabe bizitzan jarraitzea. Hori bai, Antonio ez zaitugu ahaztuko, Risi ez dugu ahazten bezela.



**ALBERTO ZERAIN**  
Mendizale Arabarra  
(Everesteko gailurra lortu du aurtan)

**AZOKA**

*deportivos*

**Zure kirol- oinetakoak**

Gorbea 27 tfnoa: 24 22 05  
Ariznabarra 17 tfnoa: 14 71 33


**URTEGI-ALDE**

**SAGARDOTEGIA**

Urrunaga(Araba) Tfnoa: 45 50 67



Kultur agenda • azaroa



Azaroak 23  
Euskadiko Kutxaren aretoan  
(Dato Kalea)  
arratsaldeko 7etan

Hitzaldia:

«Euskal dinosaurioak»

Alfontso Martinez Lizarduikoa



Ilargi Bidean txirrindula martxa.  
Azaroaren 29a. Ilargi betea.

Mendirako Irteerak

Mikologia tailerra

Azken bi hauek data zehaztu gabe.  
Interesatuz gero Bagarera jo informazio  
gehiagoren eske.

Bagare (Kutxileria 62)

☎ 25 10 84

**EUSKARA ASTEA**  
**GAZTETXEAN**

**Asteartea 23:**

Iluntzeko 8etan

Filma eta  
txistorra

**Osteguna 25:**

Gaueko 10etan

Antzezlan eta  
afaria

**Larunbata 27: Hamabi ordu euskaraz**

Eguerdiko ordu 1ean

Kalejira

3etan

Herri Bazkaria

Arratsaldeko 5etan

Hiri Kirolak

7etan

Antzerkia

Gaueko 10etan

Kontzertua

**EUSKALGINTZAN DABILTZAN  
PERTSONA ZEIN KOLEKTIBO  
GUZTIONATZAKO OHARRA.**

Informazio on bat eskeintzeko behar-  
beharrezkoa zaigu zure laguntza. Bidaliguzu  
antolatzen duzuen guztiaren berri.

ESKERRIK ASKO!

**GEU GASTEIZ**

IRAGARKIRIK ERRENTAGARRIENA  
hilabetero 5.000 etxetan

**zure euskal  
LIBURUDENDA**

Plaza Berria, 14  
Virgen Blanca, 1  
Tfnoa: 23 16 79 GASTEIZ

**errikoia**

## ERAKUSKETAK



**Luis de Ajuria Aretoan** (General Alava 7).  
Azaroaren 15a arte. LUIS BADOSA. Serie taurikoa.

**San Prudentzio Aretoan** ( San Prudentzio 30).  
Azaroaren 8a arte: EUSKAL PINTURA AURREZKI  
KUTXEN BILDUMETAN

**Pajarita Aretoan.** (Kutxilleria kalea, 22)  
Azaroaren 2tik 15ra ANGEL SAEZ DE VICUÑA. Pintura

**Cordon Etxean:** ( Kutxilleria, 24).  
Azaroaren 10a arte: NATUR ZIENTZIETAKO X.  
TAILERRA. Fossilak. Dinosaurioak.

**Araba Aretoan:** (Dendaraba).  
Azaroaren 8a arte: ELENA SANTANO eta SAGRI  
MAULEON. Eskultura eta grabatua

**Ur-biltegi zaharra:** ( Landatxoko gaina).  
Azaroaren 2tik 15era: GAURREGUNGO PLASTIKA.  
Vitoria-Arte-Gasteiz

**Kultur Etxean:** (Florida,9).  
Azaroaren 13a arte: ARGAZKI ERAKUSKETA

**CM2:** ( Herreria, 24).  
Azaroaren 27a arte: «OTEIZAZ» JORGE OTEIZAREKIN  
TOPAKETA

**CARUSO kafetegia:** ( Enrike Eguren, 9).  
Azaroaren 30a arte: MIGUEL ANGEL GUTIERREZ  
«MANGEL»

## IDAZTEKO PREST?



### FELIX UGARTE II itzulpen lehiaketa

Filologia, Geografia nahiz Historiaz ari  
diren testuen itzulpen teknikoak.

Lanak jasotzeko epea: 1994.eko  
Urtarrilak 28a

Saria: 100.000 pezeta

### Fantasi Ipuin Laburren II unibertitate lehiaketa

Lanak jasotzeko epea: 1994.eko  
Urtarrilak 28a

100.000 pezetako bi sari (euskaraz eta  
erdarazko sailetan)

**Antolatzailea:** Filologia eta  
Geografi-Historia  
Fakultatea

Urkixoko Markesa z/g  
2111 Postakutxa  
01006 GASTEIZ

### IKUSPEGI BERRIA

### Arabako Argazkilari Gazteen VII. Lehiaketa

12-19 urte bitarteko  
gazteentzat.

Gai librea

Argazkiak onartzeko epea:  
1993-12-15

### ARGAZKILARITZA

Oinarri-arauak eskuratzeko  
edota lanak bidaltzeko:

**Arabako Argazkigintza  
Elkartea (AAE)**

1.672 postakutxa  
Manuel Iradier 6, 4  
(iluntzeko 8etatik 9,30ak arte)




### EUSKARAZKO MEZAK

**Larunbatetan:**  
6,30etan El Pilar Elizan  
7,30etan Erreparadoretan

**Igandetan:**  
11etan Estibalitzen (ele bietan)  
11.30etan Jesus Langile Elizan  
12etan Erreparadoretan

J A T E T X E A



Kutxilleria, 26 tfoa: 28 81 47  
•GASTEIZ

ALISAS

TABERNA

EZ DAGO  
PINTXORIK

KUTXI • GASTEIZ



ESPERANTO

Oinarritzko ikastaroa  
Urritik Abendura

Arabako Esperanto Elkartean

Zapateria, 29 ☎ 22 00 71 (Natxo)





## ZINEMA

Arratsaldeko  
8etan

Gidoiak eta  
gidoiegileak

- Azaroak 10 • «El tercer hombre»
- Azaroak 17 • «Ladron de bicicletas»
- Azaroak 24 • «El pisito»
- Abenduak 1 • «Eva al desnudo»
- Abenduak 9 • «Primera Plana»

Azaroko emanaldiak Luis de  
Ajuria aretoan izango dira,  
Anbendukoak Kultur Etxean

Orhum zine-Kluba

Gaueko 8,30etan  
Principal Antzokian



## ANTZERKIA

- Azaroak 6 «Adagio Violentísimo»  
**Tanttaka Antzerkia**
- Azaroak 10 «Crimen y castigo»  
**Taganka (Mosku)**
- Azaroak 12 «El nacional»  
13 eta 14 **Els Joglars**
- Azaroak 17-18 «La cenicienta»  
**Compañía Lindsay Kemp**
- Azaroak 20 «Zanahorias en el vientre  
de la bestia»  
**Dar-Dar eta J. Perugorria**
- Azaroak 22 «500 años»  
**Denise Staklas (Brasil)**



## MUSIKA

Principal  
Antzokian

- 24, asteazkena • **Madame Butterfly (opera)**  
8,30etan
- 26, ostirala • **Euskadiko orkestra**  
7,45etan **Sinfonikoa Kontzertua**
- 27, larunbata • **Georgiako orkestra.**  
8etan **Kontzertua**
- 28, igandea • **Gasteizko Udal Banda**  
12,30etan **Kontzertua**

# ERREITEN



### ARAIÁ

Pan y Chocolate Antzerkia: Zahino.  
Azaroak 29, 15,30etan Eskolan

### ARLUZEA

Latiriri Antzerki taldea: «Cocktail  
Sinfonico» Azaroak 20, 17etan  
Gizarte Etxean

### DULANTZI

Traste antzerki-taldea: «El  
Animador». Azaroak 27, 19,30etan  
Kultur Etxean

### GOPEGI

Bideo-Foruma: «Pretty Woman»  
Azaroak 15, 17etan Bengolarran

### LANTZIEGO

Laguardiako Jotariak. Azaroak 17,  
18etan Ikastolan

### LEGUTIO

Migul Garcia de Cortazar Antzerki  
taldea. «El circo pobre» Azaroak 13,  
18etan Eskolan

### PIPAON

Udaberria eskolania. Azaroak 28,  
12etan Elizan

### LEZA

Vivir del Cuento-Ñake antzerki taldea  
Azaroak 20, 19,30etan Gizarte etxean

### MAESTU

Hitzaldia: Maestuko gauzak. Jose Luis  
Saenz de Ugarte. Azaroak 13,  
18,30etan Gizarte Etxean.

### GEZALTZA

Gasteizko ume kantariak. Azaroak 28,  
12etan elizan.


**DURRUMA KANPEZU** (San  
Roman de Campezo)

**GALLUR** taldea. Musika herrikoia.  
Azaroak 21, 12etan Elizan.

**URIBARRI GAUBEA** (Villanueva  
de Valdegobia)

Bideo-Foruma «Shirley Valentine»  
Azaroak 28, 17etan Liburutegian

**ARABAKO FORU ALDUNDIA**  
**KULTURA SAILA**



**zzalu**  
**FOTOKOPIAK**  
**Berehalaxe!!**  
Prado 20

Tfnoa: 945-288248 • Faxa: 945-253291



**JATETXEA**  
**ERRETEGIA**

OKELA ETA  
ARRAIN  
ERREAK

Cantòn de San Fco. Javier, 4 • Tfnoa: 27 68 33 • 01001 GASTEIZ-

# DENBORAPASA

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	G	O	R	O	S	T	I	Z	A	
2	A	P	G		F	E		A	A	O
3	L	U	M	A		G	A	K	O	
4	E	S	A	L	D	I		U	T	O
5	P		R	E			A		S	
6	E	I	A	G	O	R	A			A
7	R	I	G		O	H	E		E	R
8	R	R		E	R	I	T	E	G	I
9	A	E	K		A	T	A	R	A	
10	K	A	I	O		V		I	K	U

## ZEHARRETARA

- 1-Gure aldizkariko zuzendaria;
- 2-Batrazio; Letra izena; zulo;
- 3-Idazteko; Giltzarri; 4-Esaera;
- (Ald.) Bururatu; 5-Fosforo;
- Musika-nota; Lehena;
- 6-Hasperen; Lehena 7-Gasteizko kafetegia; Lo egiteko; (Ald.)
- Musika-nota; 8-Kontsonante errepikatua; Ospitale;
- 9-Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundeá; Bizkaeraz atera
- 10-Itsas-txori; Bokal; (Ald.) Ukitu aditzaren infinitiboa.

## GOITIK BEHERA

- 1-Txori mota (pl.);
- 2-Erakunde erlijiosoa; Nireaz;
- 3-Brasilgo futbolari; Nota atzizkia; 4-Oxigenoa;
- Unitatea; Bokale; 5-Taxietan; Bostehun; Biba; 6-Leku atzizkia; Egin 7-Bokale;
- Lehena; Bizkaiko herri
- 8-Zorro; lehena; Gaiso;
- 9-Ahoz egindako hotsa; Euskarazko tituluak;
- 10-Oxigenoa; Erregali; Opari

## IEROGRIFIKOA

10	K	A	I	O						
9	A	E	K							
8	R	I	G							
7	R	I	G							
6	E	I	A	G	O	R	A			
5	P		R	E						
4	E	S	A	L	D	I				
3	L	U	M	A						
2	A	E	K							
1	G	O	R	O	S	T	I	Z	A	
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	

## Erantzunak

AL kateak

AK kateak



Nork agindu zuen?

# ANBOTO

TABERNA - JATETXEA  
EGUNEKO MENUA

Kutxillera, 29 - Tfnoa. 25 00 93 -  
01001 GASTEIZ

# Chimbo

Jatetxea

Cuchilleria, 57 • Tfnoa: 27 28 91  
GASTEIZ

# “UPELA” MOTRI

SAGARDOTEGIA • ZALDITOKIA

Tfnoa: 908-67 31 08 ALAIZA (Araba)

## Lehena...

### KIPULA ZOPA GAINERREA



#### Osagaiak:

- 3 kipula handi
- 50 gr. gurin.
- 75 gr. gruyere gazta  
• (birrindua).
- 2 litro. salda.
- 100 gr. ogi zatitua
- Gatza.
- Piperrautsa.

#### Nola egin:

Kipula zatitua gurinetan bigundu. Gorritzen denean, salda bota, gatza eta piperrautsa ahaztu gabe. 35 edo 40 minututan egozten utzi.

Bitartean ogia xigortu eta salda egosita dagoenean ogia, gazta eta gurin urtu pixka bat gaineratu. Labea berotu eta zopa sartu gaina ondo erreta egon arte.

## ...bigarrena...

### OILASKOA ZERBEZATAN



#### Osagaiak:

- Oilasko zatitua
- Litro bat zerbeza.
- Patata handi bat.
- Tipula bat.
- 6 goilarakada olio

#### Nola egin:

Tipula eta patata zati finetan txikitu. Lapikora olio bota eta berotzen denean tipula eta patata gorritu.

Zerbeza eta oilaskoa zatitua bota eta 30 minututan egosten utzi. Ia eginda dagoenean perrexila eta gatza erantsiko dizkiogu.

Bero-bero zerbitzea komeni da.

## ...eta azkenburukoa.

### ANANA FLANA



#### Osagaiak:

- Anana lata edo anana naturala.
- 300 gr azukre.
- 2 goilarakada ron.
- Goilarakada bat irin.
- 6 arraultz

#### Nola egin:

Ananaren zukua azukrearekin batera egosi 5 minututan su txikitan.

Anana dado txikitan ebakil Arraultzak osorik irabiatu eta irina, rona, anana eta bere zukua nahastu.

Flan ontzian azukrearekin karamloa egin eta lehengo nahasketa bota. Labe berotara sartu eta ordu betez bertan eduki.



## Bacalao Giraldo

- Egunero makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

**ERAMAN ETA JAN**  
«Kalitatea eta erosotasuna zure esku»


Angulema, 2 - Tfnoa.: 27 23 25 • Basoa, 6 - Tfnoa.: 22 16 36 • Gorbea Merkaturia - Zaldiaran - Gasteiz





# BI SABEL, ... OGITARTEKO BAT.





Euskara gure kulturaren oinarria da.  
Horrexegatik egunez egun aurrera  
goaz euskara arabar guztion  
hizkuntza izan dadin.





Kaixo Gasteiz:

Ikustekoa da azken urteotan zein hiri ederra bihurtu zaren! Zerbitzuak, garbitasuna eta bizi kalitatea zure sinonimoak bilakatu dira. Horregatik, aspaldi nuen zurekin hitz egin eta elkarrekin zerbait egiten hasteko gogoia.

Nik ere, bost urte baino ez izan arren, salto handia eman dut. Sortu berri diren bi merkatutan, herri aldizkarietan eta berripaperetan, punta puntan nabil. Horrez gain, azken teknologiaz lan egiten duen inprimategi moderno bati dagokion moduan, denetariko zerbitzuak eskaintzen ditut. Kalitate gorenaz eta modu onean.

Laster Gasteizen jarriko gara lanean, Santiago kalean, eta hementxe izango dugu elkar ezagutzeko aukera. Zatoz lasai. Nire lanak erakutsiko dizkizut eta zure beharrei erantzun egokiak emango dizkiegu elkarrekin.

Ah, eta agurtu baino lehen, **GERTU** naiz, euskaraz lan eginez kalitatea, azkartasuna eta prezio ezin hobeak eskaintzen dituen inprimategia.

Goraintziak etxean eta laster arte, Gasteiz.